



# AMA



O zein mutiltxo polita  
amatxok daukana!...  
Ta nolako lo edera  
gingo duana!

.....

Ea ba, maitia, .... txasta!  
seaska epelean.....  
orain estali .... ederki!  
Ara ama zure urcan.

.....

Bañan..... begi argiak  
maite, begitxen nazu!  
onela... itxi leyua ta  
laixter lo egingo-zu

.....

Negar?... Ez dezu nai maite  
amatxok gela iluntzerik? ..  
Ora ba leyua iriki!  
Joan «mumua» emendik!  
Ea polita, egin lo;  
ama ementxe daukazu,  
eta zuk lo egin daizun  
berak abestuko dizu:  
lo, lo! maitetxua lo, lo!

.....

.....

Nekez bañan, loak artu du  
nere biotzeko puxka;  
orain nuan ixil-ixilik  
neure lanak egitera.

.....

.....

Ai bañan.... nork utzi berau?  
Nola alde berorengandik? ..  
Gizajca.... lo dago ta  
ene! iripare egiten dit!

.....

Tira; laztan bat emanda  
nuan nere lanetara;  
Ez!.... obeko det ez eman,  
bestela esnatuko da!

.....

Leyua... onela.... itxita,  
nuan bai, nuan emendik...  
bañan! ze esnatu bear det  
laztan bat emanagatik!

Poliki... poliki, ba, ... p... a!  
Ai!.... Esnatu, zu, polita?  
Ez laztana! Egin, lo, lo,  
amatxok abestuko-ta: \*  
lo, lo! maitetxua, lo, lo!

(1) TENE aipatuaren Idazki eta Olerkietarik. (Zornotzan — Jaungoikozale-ren irarkolan 1923) — Datorren ilabetean, Jainkoak nahi badu, erranen dugu TENE'ri nolako atseginarekin irakurri ditugun Miren Itziari zuzendu zituen idazki sutuak, baita ere Aberiaren onetan moldaturik daduzkan olerki... ez «txiroak» ez, bainan eder, ezti, ezin bihotzaltchagarriagoak.